



Kanbo, euskal hiri eragile eta aktibo gisa berriz kokatzea, Lapurdiko bihotzean

EUSKARA



Diagnosticoko batendako galderak:

Zein da euskararen erabileraren abiaduraren galtze maila?

Euskara bigarren maila batean baztertua al da?

Egunerokoan euskararen berezko erabilera bultzatzeko balibideak ezarriak al dira?

Zein da zerbitzu publiko elebidunera iristeko maila Herriko Etxean?

Zein leku du Euskarak jendaurre publikoetan?

Zein da ekonomia eta elkarte eragileen inplikazioa bere sustapenean?

Nola baieztatu Kanbo euskaldun eta integratzaile bat?



Gure proposamenak:

PLANAREN AITZINEKO, DIAGNOSTIKO SOZIOLINGUISTIKOA EGIN.

PLAZARA MOTAKO EGITURA PROFESIONAL BATEKIN ELKARLANEAN, EUSKARA PLANA IREKIA ETA PUBLIKO GUZIEI EGOKITUA ASMATU ETA MARTXAN EZARRI. (+ PLAZARA GRAFIKOA).

PROPOSAMEN HAUEK ESTALIKO DUTE:

- Sentsibilizazioa.
- Transmisioa: Jakinola motako egiturekin elkarlan aukerak aztertzea.
- Euskararen motibazioa eta prestigioa: parte hartze sistematikoa sustapen.
- ekitaldietan (Korrika, Euskaraldia, Herri Urrats...).
- Eguneroko erabilera.
- Ikusgarritasuna.



MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA



**Diagnostiko
batendako galderak:**

*Herri bakoitzeko hautetsien
presentziak bi herrietako bestetan
egoitera mugatzen den senidetze
batek asetzen ote gaitu ?*



Gure proposamenak:

PAREKATZEA GARATU KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA, SOZIO-EKONOMIA ETA
HIZKUNTZA TRUKAKETAK BERRANTOLATUZ.

LANKIDETZA ESTRATEGIA BAT GARATU HEGO EUSKAL HERRIAREKIN.

MUGAZ GAINDIKO TRUKAKETAK ERRAZTU.

KULTURA



**Diagnostiko
batendako galderak:**

*Arnaga izan ezik, kulturgintza aski ikusgai jartzen eta
laguntzen da Kanbon?*

*Kanboko kultur jardueren
eskaintza bere eragin mailaren parekoa al dago?*

*Arte eta kultura heziketa eskaintza, aski abera tsa da
herrian?*



Gure proposamenak:

EXISTITZEN DEN KULTUR AKTIBITATEAK BIZIBERRITU:

- Gure kultur eragileekin elgarritzeta erregular baten ezartzea, haien beharren entzuteko.
- Logistika, administrazio eta komunikazioari dagokienez, animazioen eta ekitaldien antolaketan, laguntza handiagoa eskaintzea.
- Nahi duten eragileeri laguntza eskaintzea epe luzeko proiektuetan (Kultur ingeniari-tza gunea, herriko zerbitzuetan): festibalak, erakusketak, ikuskizunak, ...

HERRIKO LEKU EZBERDINAK BALORIZATU KULTUR AKTIBITATE IRAUNKORRAK SORTZEKO, TOKIAN HEDATZEKO ASMOZ ETA KALITATEZKO TURISMOA UZTARTUZ :

- Zenbait leku egokitzea arte eszenikoen eta kulturarteko bitartekaritzaren aktibitateak: Sorhainde aparkalekua, Juggleux gela estalia, Albeniz plaza.
- Kiroldetgia erabilera aintzeko gela izatera egokitzea, ikusle aintzeko ikuskizunei harrera egiteko.
- Kulturgune baten obratzea aztertu, 3 leku enblematikoren inguruan antolatua: Azantza, Fagalde Etxea eta Musika Etxea (Euskal Arte Garaikideko Zentroa, hitzaldi/entzanga bat, artisten egoitzak, ...)
- Burlazteia, Behereko Kanboren kulturaren bihotz gunea bihurtzea.
- Kanboko Herria, aire libreko museoa bilakara, bere historia eta ondarea goraiatuz.

KANBOKO KULTUR EKITALDI BERRIAK ERAKARRI, HALA NOLA:

- Arte erakusketak, Azantzan eta Arnagan, hedapen handieneko museoekin egindako elkarlanean esker (Guggenheim).
- Musika, dantza, antzerki eta literatura festibalak... izari

handiko programazioarekin, bereziki hiri erdigunean.

- Gure tokiko kultur eragileen programazio handiagoa.
- Kulturarteko bitartekaritza ekintzak, publiko ezberdinentzat: haur eta gazteak, adinekoak, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak zaintza-zentroetan.

KALITATEZKO ARTE- ETA KULTURA-HEZKUNTZA GARATU, AZTERTUZ:

- Maurice Ravel musika eta dantza kontserbatorioaren antena baten irekitzea.
- Euskal Herriko Goi Mailako Arte Eskolaren antena baten irekitzea, egungo eta mugaz gaindiko proiektu batean.
- Egungo eta ohidurazko musikari dagokionez, Musikas-ekin lan estua egiteko aukera garatzea.

◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆ **EKONOMIA / ZERBITZUAK / EKOLOGIA** ◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆



Diagnostiko batendako galderak:

Zein ardatz landu behar dira Kanboko aktibitate ekonomikoak dibertsifikatzeko?

Nola aurreikusten dute Kanboko herriak eta enpresek klima-aldaketari aurre egitea? Nola egokitu eredu turistikoa erronka horren parrean?

Herriak bere ahalmen ekologikoak erabat baliatzen al ditu?

Laborantza jarduera oso ahulduta dago Kanbon. Nola eman lehentasuna eta nola bideratu bere ekoizpenak tokiko beharretara?

Nola mantendu herritarrengana bideratutako merkataritza eskaintza anitza? Nola indartu Herriaren rola merkataritza-eskaintzaren laguntzan eta dinamizazioan?

Zerbitzu publiko guzietarako sarbidea egokia al da? Bereziki tresna digitaletara joera gutxi dutenentzat?

Nola har ditzazke Kanbok Euskal Herri barnekaldeko formakuntza-eskaintzen aukerak?



Gure proposamenak:

OSAGARRI-SEKTOREA SENDOTU, JARDUEREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATUZ :

- Kanboar Osagarri Etxeen eredu ekonomiko historikoa, familia-kapitalekoa, babesteko neurri guztiak hartzea :
 - Osagarri-eragileen transmisio gaietan laguntza eskaintzea : gobernantza, mentoring-a, eta behar izanez gero, inbertsio-funtsak.
 - Ingeniaritza eta finantzaketaren aldetik laguntzea Kanboko ekosistema indartzeko ekimenetan :
 - » MEDICAMBO-rentzat proiektu-buru baten kontratazioa konfinantzea (PBI – Euskal Industriak eredu).
 - » Farmazia partekatua.
 - » Formakuntz-ekintzak.
 - » Haurtzaindegi partekatua, etab...



ANDRÉ
GARRETA

Président de la CCI
Bayonne – Pays
Basque et de l'ESTIA
/ ESTIA eta Baiona
Euskal Herriko MII Garen
Presidenta

"Euskal Herriko ekonomia-
miaren etorkizunerako
funtsezkoa da goi-mailako
hezkuntza Kanbo bezalako
lurraldeetara hedatzea. Hiri
hau ESTIA, gure ingeniari-
za-eskolaren etorkizuneko
hedapenerako aukerarik
argien artean dago,
horrek ekarriko lukeen
ekosistema osoarekin
batera."



- Osagarri Etxeen gaitasunak lurraldeko beharretara gehiago konektatu (adib. : adikzioak, zaintzaileen laguntza, kirol elkarteak, eskolak...).
- Hezkuntza polo zabal bat garatzea, bereziki osagarri lanbideen inguruan.
- ESTIAren 3. poloaren garapena, campusarekin eta Sophia Genetics-ekin lankidetzan, osagarria eta digitalaren inguruan.
- Osagarri-praktika osagarrien unibertsitate polo bat sortzea (hipnositik errealitate birtualeraino).
- Izarbel gisako ekosistema teknopolitano bat garatzea (enpresa-haztegia), goi-mailako hezkuntza polo horren inguruan, Beaulieu gunean kokatua.

- Trein-azpiegiturak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko, geltokiaren inguruko gunen batzuen birmoldaketa proiektu bat abiatzea, jarduera tertziario eta artisau anitzetarako.
- Herri Elkargoarekin elkarlanean, Mulienia gunea jarduera produktibo (industria) eta artisau jardueretara bideratzea (eraikuntza lanbideak.)

ESKAINITZA KOMERTZIAL ANITZA MOLDATU, LURRALDEKO BIZTANLEAK LEHENETSIZ (HELBURUA: LEKUAN BEREAN BEHAR GUZIAK ASETZEA KOSTALDERA JOAN GABE)

- Herriko logistikako eta komunikazioko baliabideak merkatarien/eskura jartzea. Merkatarien elkarte berriro martxan ezartzea, epe jakin baterako animatzaile bat jarritz.
- Merkatariei turismo-bulegoa turismo-bulego eta merkataritza-bulego bihurtzeko prozesuan parte har dezaten proposatzea.
- Erosteke lehentasun eskubidea martxan ezartzea saltegia transmititzen direlarik.
- Merkatu egunetan eta ekitaldi kulturaletan Trinketeko karrika oinezkoentzako bihurtzea.

TURISMO-POLITIKA GURE ESKU ATXIKI, HAREN ORIENTAZIO IRAUNKORRA INDARTUZ :

- Turismo bulego independentea mantentzea eta Euskal Herriko Turismo Bulegoarekin aliantzak lantzea.
- Gure turista helburua eskualderatzea, Hego Euskal Herria barne.
- «Lau sasoinen» eskaintza garatzea (enpresentzako mintegiak, artistentzako egoitzak...).
- «Pase berde» bat sortzea, bisitariak eta kuristak mugikortasun kolektiboan etor daitezen eta tokiko aktibitateetara joan daitezen sustatzeko.

KANBOKO LABORANTXA BABESTU ETA HAREN ERRESILIENTZIA GARATU:

- Laborantxa erabiliak diren lur guztiak babestea.
- Herriko laborariekin adar-eraikuntza erretegia, 2.000 eta 3.000 apairu/eguneroko potentziala aprobetxatzeko, jantoki kolektiboaren eskaintza desberdinen bidez (Jantegi eskola-jantokiak, osagarri zentroak, Helduen etxeak),



JURGI
CAMBLONG
CEO SOPHIA GENETICS

"Kanbok osasun-ekosistema
bereziki sendo eta kalitate
handikoa du; testuinguru horretan,
gu bezalako enpresa berritzaile
batek, analisi eta aurreikuspen
digitalean aditua dagoenak, guziz
egokitzat jo lezake Bideateko iker-
keta-zentroaren hedapena bertan
hedatzea."

Herriak luzaroan bermatutako prezio-politika batetan oinarrituz. «Oinak platerean» (Dordogne-eko departamendua) elkarrearen lanaz inspiratzea.

- Sistematikoki parte hartzeko aukera ematea Kanboko laborariei heieri lotuak diren erabakietan.
- Herriko laborarien ekoizpena dibertsifikatzeko eta balioesteko tresna amankomun bat proposatzea (transformazio laborategia, batez ere baratzegintzan, saltokian), potentzialki Musdehalsuenborda gunean.

KANBOK ZERBITZU PUBLIKOEN ZENTRALITATE-ROLA BETE DEZAN BERMATU:

- SOS mediku-zerbitzuaren antzeko eskaintza bat ezartzea.
- Etxebizitzari eta energiari buruzko bulego ibiltaria antolatzea.
- Estatuko zerbitzuen presentzia fisikoa astero bermatzea (zergak, CPAM, CARSAT, France Travail ...).

CEC (PASTILLA: CEC-IMPACT.ORG) (KLIMAREN ALDEKO ENPRESEN HITZARMENA) MOTAKO JARDUERA BAT PROPOSATU KANBOKO ENPRESENTZAT, HAIEN IBILBIDE-ORRI BIRSORTZAILEAREN DISEINUAN LAGUN DIEZAIETEN. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA ETA ERABILERA GARATU :

- Tokiko zurezko galdaretan oinarritutako bero-sare kolektiboen ezarpena berrabiaraztea.
- Herriko Etxearen teilatuak aprobetxatzea energia fotovoltaikoaren arloan.
- Autokontsumo kolektiboko begizta bidezko ekoizpen elektrikoko kooperatiba bat sortzeko aukera aztertzea.
- Jatorri geotermikoa duten energien ekoizpenari buruzko ikerketa.
- Proiektuak garatzeko elkarlan bat proposatzea ESTIari.
- Partikularrentzako pelletak erosteko mutualizazioa proposatzea.



CONVENTION DES ENTREPRISES
POUR LE CLIMAT



ANTOINE
BIOY

Universitaire
Paris 8 / Pariseko
Unibertsitaria

"Kanboko herritar eta unibertsitario gisa, oso interesgarri eta zirrargarri iruditzen zait unibertsitate-polo baten sortzeko ideia. Neure mailan, eragileak bildu ditzazket salbuespenezko polo bat pentsatzeko (ikerketak, irakaskuntzak, praktikak), osagarriak diren osasun-praktiken inguruan, hala nola 'esku hutsezko' praktikak (hipnosia bezalakoak) eta praktika teknologikoak (errealitate birtuala, adibidez) uztartuz. Eta, jakina, Kanbok osasunaren arloan duen nortasunagatik baizik, halako polo batek erabateko zentzua eta egokitasuna luke."

